







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,4 egin zuen behera ekainean, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Zehazki, sektoreka, industrian %0,4, zerbitzuan %5,8 eta bizitegietan %7,4 jaitsi zen.

Industria alorrean lehen sei hilabete arteko kontsumo metatuari dagokionez, iazkoaren azpitik segitzen du. Zementuan kontsumoak %36 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %27, kautxuaren eratorrietan %8,4 eta beiragintzan %7,6. Siderurgian eta galdagintzan, ordea, gora egin zuen (%4,3).

#### Gas naturala

Ekainean gas naturalaren guztizko kontsumoak %11 egin zuen behera, 2012ko ekainean izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %24,3 jaitsi zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena %5,6.

Lehen sei hilabete arteko metatutako kontsumoak %5,2 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta (-%18,2 CCTT-n eta -%1,7 gainerako sektoreetan).







#### Erregaiak garraioan

Maiatzean, garraioan erregaien kontsumoa %3,4 igo zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %7,9 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %4,8 egin zuen gora.

2013ko maiatza arteko kontsumo metatua %3 igo da, iazkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %7,9 egin zuen behera eta A gasolioenak, aldiz, %4,4 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan

Ekainean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 90,4 milioi kupel izan zen (2012ko ekainaren aldean, %1 igo zen). Hala, urtebeteetan, Europar Batasunean %4,4 egin zuen behera kontsumoak, 13,5 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan, ordea, %0,8 igo zen, eta 19,1 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan %4 egin zuen gora, eta 10,5 Mbd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,8 igo da, oro har, eta Txinan %3,7; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %4 eta %1,1 jaitsi da, hurrenez hurren.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %12,3 jaitsi zen Espainian, ekainean, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %8,9 egin du behera.






Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%7,4), 2012ko ekainean izandakoarekin erkatuta, eta urteari dagokion metatua %4,1 jaitsi da.

Errepideetan erregaien kontsumoak %4,3 egin zuen behera maiatzetan, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %4,7 jaitsi zen, eta %4,2 gasolioen kasuan. Urte mugikorrari dagokion kontsumo metatua %5,9 egin du behera (%7,5 gasolinena eta %5,5 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %5,8 egin zuen behera maiatzetan, eta urteari dagokion metatua %7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 103,1 \$ (78,1 €) izan zen ekainean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %2,9 egin zuen behera (%0,5 eurotan).

#### Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %15,9 igo zen maiatzean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 26,6 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %5,9 egin zuen behera maiatzean, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28 €/MWh iritsi zen. Henry Hub-ena, berriz, 10,1 €/MWh izan zen martxoan eta %179,3 egin zuen gora urtebetean, eta Espainiako aduanan izandako prezioa martxoan 26,4 €/MWh izan zen eta %97,3 egin zuen gora urtebetean.

#### Ikatzen prezioa

Maiatzean, ikatzen prezioa 97,7 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %9,5 jaitsi da.

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %23,6 egin zuen behera ekainean, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 40,9 €/MWh iritsi zen. CESUR oinarriko prezioa ekainean 45,4 €/MWh izan zen, %11 jaitsiz, 2012ko epealdi horretan izandakoarekin erkatuta.

#### Erregaien prezioa

EAEn, maiatzean, gasolioaren prezioa 1,29 €/l izan zen eta gasolinarena 1,38 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %3,2 eta %1,1 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

#### CO<sub>2</sub>-ren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 3,9 €/t izan zen maiatzean, eta 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %37,9 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.